

Getxokoa bezalako erasoak eta elkarrizketa ez direla «bateragarriak» dio Aznarrek

Herenegun molotov koktelak jaurti zituzten Guardia Zibilaren egoitzaren aurka

Agentziak / Madril

Herenegun Getxoko Algorta auzoko Guardia Zibilaren egoitzaren aurka molotov koktelez egindako erasoak PPko buruzagi ugariaren erreakzioa sortu du. Dena dela, guztiak ez dira iritzi berekoak. Hala, Espainiako presidentea, Jose Maria Aznarrek, elkarrizketa prozesua galarazten duela esan du, baina Enrique Villarrek garrantzia kendu behar zaiola adierazi du.

GETXOKOA bezalako erasoak «ez dira bateragarriak elkarrizketarekin», Jose Maria Aznar Espainiako presidentea atzo adierazi zuenez. Aznarrek hitz horiekin egin zuen herenegun Getxon izandako erasoaren balorazioa. Getxoko Algorta auzoan dagoen eraikinari herenegun arratseko 20:15etan egin zioten eraso, informazio agentziek adierazi dutenez, 30 kaputxadun inguruk. Kaputxadunek 40 molotov koktel jaurti zituzten eraikinaren aurka, kalte materialak eraginez.

Aznarren ustez, «indarkeriaren adierazpenak, edozein mailatan gertatuta ere, onartezinak dira». Kazetariaren aurrean eginko agerraldi laburrean honela mintzatu zen Espainiako presidentea: «Ohar serio bat da: indarkeria ez da bateragarria elkarrizke-



SANTIAGO JIMENEZ / EFE

Enrique Villar, atzo, koktelez eraso zioten etxearen parean.

tarekin eta erakunde demokratikoetan parte hartzearekin».

PPko kide guztiek, baina, ez dute alderdiko buruzagiaren iritzi bera. Enrique Villar Espainiako Gobernuako EAEko ordezkariak, esaterako, halako ekintzei garrantzia kentzearen alde egin zuen atzo. Villarrek Getxoko Guardia Zibilaren egoitza bisitatu zuen atzo, herenegun erasoak eragindako kalteak ikusteko, eta esan zuenez, «halako ekintzei ez zaie dutena baino garrantzi handiagoa eman behar, bakeari oztopo-

ak jartzea besterik ez baitute bilatzen». «Bakeari jartzen zaizkion ahal bezainbeste oztopo kendu behar dira, eta ez atentatuen inguruan etengabe aritu. Egin behar dena erasotzaileak atxilotzen saiatzea da, eta ondoren bakearen gaiarekin aurrera jarraitzea», adierazi zuen Villarrek Getxon.

PPko diputatu Ignacio Gil Lazaroren ustez, «halako ekintzek ez dute PPren bake-rako borondatea hautsiko». Esan zuenez, orain arte Espainiako Gobernuak «dinamikoki» ari da jokatzen bakea

lortzeko, eta aurrerantzean ere horrela jarraituko duela ziurtatu zuen, erasoek ez dutela prozesua geldiaraziko.

Gil Lazaroren iritzia, beraz, ez dator bat Aznarrek esandakoekin. Eta Juan Carlos I.a Espainiako erregeak ere Aznarren adierazpenen aurkako iritzia azaldu zuen atzo. Esan zuenez, «Bilbon gertatutakoa gertatuta ere, kon-taktuek aurrera jarraitu behar dute». Juan Carlos I.a erregeak adierazi zuen halako prozesuetan lasaitasuna eta eskuzabaltasuna izan behar dela.

Ibarretzek EHri kondena exijitu behar diola dio PSOEK


■ GETXOKO eraso gaitzesi ezean, Juan Jose Ibarretzek EHrekin duen akordioa hautsi behar lu-keela adierazi zuen Alfredo Perez Rubalcaba sozia-listak. Rubalcabak esan zuenez, Ibarretzek galde-tu behar dio Arnaldo Ote-giri ea halako indarkeria ekintzak babesten dituen ala ez, eta, horren ostean, EAEko lehendakariak eraso gaitzestea exijitu beharko lioke.

Rosa Diezek ere gauza bera eskatu zion Ibarretxeri, baina bere alderdi-kideak baino hitz gogorra-goak erabili zituen horretarako. «EHk indarkeri ekintzen gaitzespena egi-ten ez badu, EAEko go-bernua gertatzen ari de-naren konplize izango da», adierazi zuen PSE-EEko ordezkariak.

Bestalde, PSOEko di-putatu Luis Alberto Agi-riano Espainiako Gober-nuari zuzendu zitzaion. Agiriano bat zetorren bere adierazpenetan Espainia-ko presidente Jose Maria Aznarrek esandakoare-kin. Izan ere, Aznarrek eraso eta elkarrizketa ez direla bateragarriak esan zuen atzo. Agiriano, bai-na, urrutiago joan zen. Diputatu sozialistaren ir-tiziz, Espainiako Gober-nuak ENAMeko inguruari mezu argi bat bidali behar lioke, eta ohartarazi hala-ko indarkeria ekintzek jar-raitzen duten bitartean euskal presoei buruzko elkarrizketarik ez dela izango.

erreakzioak

Javier Atutxa • EAJ



«Mota honetako ekintzek ez dute bake prozesua sendotzen laguntzen»

► «Mota honetako ekintzek, etikoki eta moral-ki gaitzesgarriak izatez gain, hain konplexua eta zaila den bake prozesua sendotzen ez dute laguntzen, guztiz kontrakoa baizik», esan zuen BBBko presidentea azken egunetan izan diren ekintzak salatzerakoan, hots, Getxoko guardia zibilaren etxearen aurkako eraso, Santutxuko PPko militante baten taberna erretzea eta PPko eta PSEko militante batzuen aurkako mehatxuak. «Neurriak har ditzatela halako gertakizunak errepika ez daitezkeen», exijitu zien ekintza horien egileen hurbilekoei.

Arnaldo Otegi • HB

«Presoen arazoa bezalakoek eragiten dituzte gertakariok»

► Su-etenak ez duela «bakerako eszenatokiak planteatzen» adierazi zuen atzo Otegi. Getxokoa bezalako ekintzak beste arazo batzuk daudelako agitzen direla esan zuen: «Presoen arazoak eta eskubide demokratikoen ukapenak horrelako erreakzioak eragiten dituzte». Esan zuen gatazkaren «sustraietara» joateak bakarrik saihestuko dituela gertakariok.

Rafael Larreina • EA



«Getxoko gertaerak ez du bakearen alde ezer egiten»

► Getxoko eraso bezalako ekintzek «bakearen alde ezer ez» dutela egi-

ten adierazi zuen atzo Rafael Larreina. «Bakearen alde ez dute ezer egi-ten, eta egi-ten duten bakarra da alde bietako sektorerik inbobilistenak indartu», gaineratu zuen. Ekintza horien egileak aro politiko berri batean gaudela ez direla konturatu aipatu zuen, «eta itxura batean, lehengo borroka girora itzultzea nahi dute».

Javier Madrazo • IU-EB



«EH desmarkatu egin behar da ekintza horietatik»

► Getxoko eraso eta PPko militante baten tabernaren aurkako eraso bezalako ekintzetatik «desmarkatzea» eskatu zion EHri Javier Madrazo EBko koordinatzaile nagusiak. «Mota honetako ekintzetatik desmarkatzea eskatu behar zaio Ehri

arrazoi gabeak direlako, eta egin ezean bakerako duten nahia deslegitimatzeko duelako». Haren ustez, ez dira ekintza isolatuak, eta ENAMen estrategia planifikatu batean kokatu behar direla aipatu zuen.

Pablo Mosquera • UA

«Gobernuko alderdi orok egin behar du indarkeria ekintzen gaitzespena»

► UAko idazkari nagusiak azaldu zuenez, Gasteizko Parlamentuan agertzea eskatuko dio Juan Jose Ibarretxeri lehendakariari azken egunetako ekintzen analisia egin dezan. Era berean, EHk indarkeria ekintzak gaitzestea exijituko diola Lehendakariari aurreratu zuen. «Gobernuan dauden alderdi guztiek indarkeri ekintzen gaitzespena egin behar dute. Bestela, konplize izango da Gobernuak», adierazi zuen Mosquerak.